

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Maritxu Txintxurreta Goenaga

*Oñati,
Gipuzkoa
(1918-2014)*

Aurkibidea



Biografia



Lezesarri auzoko Goienetxe baserrian jaio zen 1918an. 9 anai-arreba ziren, baina lehengusu bat ere eurekin batera hazi zen, ama barik geratu zelako. Lehenbizi Plazako eskolan ibili zen, geroago Ospitalean mojekin eta azkenik Berezaoko eskolan, hura egin zutenean, harik eta gerra hasi zen arte. Gerra-garaian Donostian neskame egon zen katalan batzuekin. Gerra-garaian ihesean ibili ziren eta Avilesetik Frantziara joan zen itsasontziz ahizparekin batera; 7 hilabete inguru egin zituen bertan. Berezaoko auzoko Mendikua baserrira ezkondu zen eta bertan bizi da orduetik.

Zintak

ONA-085

- **Proiektua:** Deba eskualdeko ahotsak - Oñati
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Data:** 2009-03-18
- **Iraupena:** 62 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Elortza, Kepa
- **Transkribatzailea(k):** Leturia, Ane

ONA-086

- **Proiektua:** Deba eskualdeko ahotsak - Oñati
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Data:** 2009-03-18
- **Iraupena:** 30 min
- **Euskarria:** MiniDV

ONA-116

- **Proiektua:** Gerra Gogoratu Guran
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Jerardo - Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2010-02-26
- **Iraupena:** 90 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Pasarteak

1. Lau baserritar neska Donostian

- **Erref:** ONA-085/002
- **Iraupena:** 0:02:41. **Hasi:** 00:01:22. **Bukatu:** 00:04:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:

Goienetxe baserrian jaio eta han egon zen Mendikoa baserrira ezkondu zen arte. Gerra denboran Donostian neskame lanean jardun zuen kataluniar batzuen etxean. Arantzazuko Hospederian egondako lau kataluniar bikotek, Oñatiko lau neska eraman zituzten neskame Donostian zituzten etxeetara, tartean Maritxu. Lau neskok, baserritarrak laurak, ezin ziren Donostiako bizimodura egokitu, baina soldataren 12 ogerlekoak ikusi zituztenean bertan jarraitzea erabaki zuten. Hala egon ziren 7 hilabeteen.

Transkripzioa

- Ta nun jaixo ziñan zu?
- E?
- Nun jaixo ziñan?
- Ni Goixenetxen, Baxilikin, zuek egon zaie Baxilikin.
- Bai, bai.
- Bai. Ni naiz Baxilin ahizpia. Ni han jaixo ta hona ezkondu nitzan ta... Baserrittik baserrira.
- Ta ezkondu arte Goixenetxen egon ziñan?
- Bai.
- Kriada edo... nunbaitten ibili ziñan?
- Kriada eon nitzan gerra denporan eon nintzan kriada Katalan batzukin.
- Baiña nun?
- Donostian. Donostian. Justi, zeena, "Txurrukena" eon zan Hospedeixan serbitten, eta Katalanak eon zian, lau katalan eon zian, lau famelixa, eta gura euen neskaak hemenguak Donostian serbitteko. Eta topau gindduen lau neska, nere lagunak bestiak be zian, eta fan giñan laurok Donostiara.
- Baiña etxe batera?
- Ez, ez, etxe banakataa e? Euren... Katalanen etxera fan gitzan .
- Katalan horreittako etxe baikotzera zuetako bat fan zan?
- Bai. Eta eon gitzan, eta hillebete in geben eta, klaro, gu baserrixan ohittutakuak gitzan danok, lau lagunok. Eta lehenengo juntau nintzanian lagunakin esan nontan: "Maritxu, nik hil hau kobrautakuan..." Hamabi duro geukan hillekua kobraitteko, ta hamabi duro asko zan orduan e! Zeatik hemen herrixan sei duro, zortzi... hola eukein kriadak. Ta han hamabi duro. Ta danok geukan igual, gaiñea. Ta juntau nitzan ta "Ba ni hil hau kobrautakuan ni etxea noia", ta "Ba neu be baitta". "Nik ezin dot hor... Ez, ezin naiz ni hor bizi" ta zerian. Eta gero beste bixakin be juntau giñan, ta bat zan Zulatzakua, oso baserrikua, ardi-zain ta basorik baso ibiltten zana zan, "Ene...! [...] nere arditxuak zainttu eta zeian, ez, ez, neu be etxea". Laurok etxea etorteko geontzen. Baiña hamabi duro ikusi gittuanian esan geben: "Beste hillebete in ingo dou /ingou/, guk beste hillebete in ingo dou /ingou/", eta geatu giñan laurok bertantxe.
- Zenbat denpora?
- Eta gero ein gittuan zazpiña hillebete.

2. Anaia Donostiara bisitan

- **Erref:** ONA-085/003
- **Iraupena:** 0:02:45. **Hasi:** 00:04:03. **Bukatu:** 00:06:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Neskameak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak

Laburpena:

Gerraren bukaeran, neskame egon ziren Donostian. Gerra bukatu zenean, kataluniarrak etxera itzultzean, neskameak eurekin eraman nahi zituzten, baina haiek nahiago izan zuten Oñatira itzuli. Soldataren 10 ogerleko amari bidali eta geratzen zitzaizkien beste biekin ondo igarotzen zuten hil osoa Donostian. Gerran Maritxuren anaia zauritu eta Legazpiko ospitalean egon zen sendatzen. Handik bisitan joaten zitzaion Maritxuri Donostiara.

Transkripzioa

- Haik eta Barzelona librau artian zeak, nazionalak, osea, Francok hartu ebenian zea, ba, haik fan zian ta gura gindduen eruatia, e! Oso pozik euzen gurekin! Eta fateko eurekin ta ez, ez, gu etxea. Ta laurok etxea. Gehixau kriada ez giñan fan.

- Hori ze urte zan? Osea, gerra-gerran zan hori?

- Gerra-gerran bai, ya akaberan ixa. Akaberan zan, bai. Eta, ba, pentsaizu, orduan zan hemengo andra bat ebillen errekadista, Eugeni "Txarriduna" esaten otsaiña, eta ebillen errekadista. Eta gu laurok faten giñan amai bialketaa hamar duro. Eta bi duro geaketan xakun. Eta nahikua... Bai, zinera edo faten giñan, baña ziniak be orduan merke zian ta nahikua diru izaten geben hamar duro amai bialduta.

- Osea zuentzako, bi durokin hillabetia pasaitten zeбен?

- Bi durokin ondo hilla pasaitten geben. Eta ama oso pozik hamar durokin. Oso ondo, e, ama. Eta orduan, anaia geatu zan eriuta eta ospittala euen zeian, e...

- Donostian?

- Legazpin euen ospittala.

- Militarra?

- E?

- Militarra?

- Militarra, bai. Eta handik etorten xaten anaia bixittaittea Donostiara. Eta gure uezaba zela zan katalana, "Maria, ¿Quién ha venido?" y "Mi hermano, que está herido en Legazpia y ha venido". Ta halaxe, ba ugazabak pasaitten eben aurea, ezta? Ta zela ta nola eriu zan ta... Artillero ebillen ta kañoiak errebentau in osten eta ez zien iñobe hil, danak eriuta geatu zien. Eta, klaro, harek be emoten otsan propiñatxua anaiai, eta nik be emoten notsan nere hamar pezetatik propiñatxua ta sarri etorten xaten Legazpittik! Biajia libre eukaiñ. Trena-ta libre eukain zereako, Donostiarako, ta klaro, ez xakon /etxakon/ bape kostaten ta etorten zan bixittaittea! Bai, bixittaittea ez, pittin bat, zeozer, bost pezeta emoten banotsan, ba, beste bostekin kitto! Se acabó nere zea.

3. Erdaraz nola ikasi zuen

- **Erref:** ONA-085/004
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 00:06:48. **Bukatu:** 00:08:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak

Laburpena:

Anaia Madril aldean zauritu zuten. Kataluniar nagusiekin ondo konpontzen zen Maritxu. Goienetxan esnea saltzen zuten kalera, eta erdaldun asko zegoen herrian ordurako. Horri esker, Donostiara joan zenerako, nahiko ondo egiten zuen erdaraz.

Transkripzioa

-Ta zure anaioi zan gaztiaua zu baiño?

-E?

-Zu baiño gaztiaua?

-Ez, bi urte zaharraua. Aspaldi hil zan, kanzerrakin. Bi anae hil xat nei

kantzerrakin.

-Eta hori, gerran, nun eriu eben ba?

-Hori eriuko euen, ba, zeien, hor Madril aldian eo hor eriu zan. Nun ez dotsut /eztotsut/ esango, ahaztuta dakot. Bai.

-Ta zuek ze moduz entenditten ziñain zeuen nagusixakin, katalanokin?

-A, ondo, oso ondo. Neretako oso onak izan zian. Eta porteriak esaten nontan: "Maria,¿ha estado usted en muchos sitios sirviendo?" y "No, es la primera vez que vengo a servir. Estábamos en caserío, no teníamos ni un real y pues he venido así" . "Que mala suerte has tenido Maria.", "¿Si?", "En un año seis chicas ya ha cambiao", "¿Si? Ah pues no sé, yo no sé, pero pa mí son buenos". Baiña nei ondo trataitten nindduen.

-Baiña zuk erderaz, ya nahiko erdera bazekitzun ordurako?

-Bai, erderaz... Erderaz guk txikittatik ikasi geben erderaz, zeatik esnia saltzen geben bai baserritik. Ta hemen kastillanuak, ordurako kastellano asko euen, eta herrira etorten zien kastellanuakin erderaz guk... ez ondo, baiña ondo entendittekou mouan gekixen erderaz.

-Eta katalanak eurak euren artian katalanez.

-Euran artian katalan itten euen. Haik berbaik be ez euen eitten erderaz.

Neri bakarrik erderaz.

4. Gerratik ihesaldi luzea

- **Erref:** ONA-085/005
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:08:44. **Bukatu:** 00:11:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:

Koinatua frontera joan zenean, Maritxu Arrasatera joan zen, ahizparen etxera, laguntzera. Handik Elorriora alde egin behar izan zuten. Elorriotik Bilbora ihes egin zuten, eta gero Laredora. Han Oñatiko miliziano batzuekin elkartu ziren. Laredotik Santanderredera joan ziren. Hona anaia etorri zen bisitan.

Transkripzioa

-Ni iges eindda fan nitzan... Koiñatua republikanua zan, republikanua o sozialistia o hola zan. Eta ahizpa nausixena [...] ba esan eben: "Enkarna, zuk bihar dozu /bihozu/ ni frentera faten naizenian bakarrik geatu bihar zara /biza/ bai ta Maritxu etorri deilla zeurekin, geaketako, zeekin. Eta guazen Mondragueraiño." Eta aittak eta amak be esan eben "Bai, fan Mondragueraiño. Hau hamabost bat egunian ya akabota dau gerria ta." Hamabost bat egunian? Bai...! Geo fan giñan Mondragueraiño, ta gero Mondraguen batian Oñatira sartu ziala zeak, reketiak, eta handik fan gitzan Elorrixoa. Elorrixon eukan parientia, zea, nere koiñatuak. Eta fan gitzan hara, eta hartu gindduen eta ondo eon giñan han be baserrixan, ezta? Eta geo haraiño ta han be baetozen ta gero handik fan giñan Bilboora. Bilbootik fan giñan Laredora. Ta Laredon, ba, han be ezezaunakin, ba, nunbaitten sartzen giñan baiña oñatiarrakin be juntau giñan ta. Ez jat /etxat/ sekula ahazketan, milizianuak oso triste euzen, eta "Ze eitten dozue ba zuek hemen?", ta "Ba guk hola ta hola urten duu etxetik eta oin, ba, hementxe gabitz badatozela ta aurea ta aurea", ta "Bai. Hauxe da bizittekou pozik ez ta hilttekou gogoik ez", milizianuak esan oskun, e. Ta ez jat /etxat/ sekula ahazketan hoixe. Eta, ba geo handik fan giñan Santanderrea.

-Kapitalea?
 -E?
 -Kapitalea?
 -Kapitalea, bai. Eta han be, ba, refugiauak batea ta bestea partitzen zian ta, ba, gu fan giñan ugazaba ta kriadiakin bizi zan . Eta bueno, ondo hartu gindduan ta zeian . Ta gero nere anaia Juan ta horreik zela...
 -Nora fan ziñan?
 -E?
 -Nora fan ziñan? Frantziara.
 -Bai, gero, gero.
 -Oinddio Santanderren gauz.
 -Santanderren oinddio! Eta geo han geontzen, eta anaia-ta etorten zien, eta koiñatua-ta, haik baebitzen ta beti eukitten euen ta txahala erosi baserritar batzuei ta partiu euela ta okelia ekarri oskuen arrebaire nere anaiak. Eta esan otsan ugazabai: “[Aber] zuretake be hartu hemendik zuk be okelia” ta “Bai, ez dou /eztou/ aspaldixan jan okelaik!” Eta oso ondo hartu euen nere anaia be, han, ta bueno, ondo eon giñan.

5. Anaia Santanderren harrapatu zuten

- **Erref:** ONA-085/006
- **Iraupena:** 0:03:03. **Hasi:** 00:11:34. **Bukatu:** 00:14:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Gerra garaian, ihesean, Santandertik Asturiasera joan ziren; han hondartzan lo egin eta Avilesera joan ziren. Handik Burdeosera joatekoak zirela, anaia Juane eta Oñatiko Arralde taxista etorri ziren. Gizonok borrokan jarraitzea erabaki, eta Santanderrera itzuli ziren. Anaia Santanderren harrapatu zuten eta Zaragozara bidali zuten mekaniko gisa.

Transkripzioa

- Handi, ba, zeera fan bihar Santanderdi Asturiasea, hurrengo, ya esta! Atzenea! Eta, fan giñan Asturiasea ta erropak eta anaianak eta koiñatuanak eta itxi gittuan etxe bertan. Eta esan gotsan Juaneri “Ba hor ttxi dittuu zuen erropak eta guria badoiau eta zeian”. Ta gero Asturiasen plaian in geben lo. Han ez geukan lo lekuik ez euen guretako ta plaian in geben lo. Eta plaiatik fan giñan Ávilesea. Han barkua. Eta hara be eruan gindduan anaiak, eta beste txofer bat oñatiarra, e... zea, Arralde, eta...
 - Gero taxista ibili zana?
 - Bai, taxistia zan Arralde. Eta, Juanek esan otsan e "Goazen arrebaire batea, zeera, Frantziara". Zeatik ha barkua zan ya Burdeosea goiazen handik. Eta Arralde: "Ez. Lutxau in bihar xuau /bixuau/ oinddio, eta oinddiok ez gaittuk fan bihar. Gero fango gaittuk, atzenian". Atzenian? Han geatu zian Asturiasen. Asturiasen ez, Santanderren geatu zian haik. Gero anaia ta geatu zian Santanderren eta han, ba, zeak, legionaixuak harrapau zittuen ta legionaixuak esan osten: "¿Ya hay algún mecánico aquí?" y "Sí, yo soy mecánico, y estos también". Eta han sei bat, gure anaiak ezauketan zittun, “Estos también son mecánicos” y “Bueno, pues tenéis que ir a Zaragoza de aquí”, “¿A Zaragoza?”, “Sí, sí, allí hay un montón de coches

averiaus, teneis que arreglar todo aquello". Ta bueno, "Bueno, pues yo voy a coger la ropa que me han dejau aquí las hermanas y voy a coger ropa", "Sí, vete, y ven enseguida, ¿eh? Que está el coche esperando". Fan zan ta anai ai ez otsein emon erropaik, ez gittuela itxi. Baekixen ondo nere anaiak han itxi zittuena baiña, bueno, bueltau zan atzea ta "¿Dónde traes la ropa?" y "No, no me han dado. Mis hermanas que no han dejado, pero sí, yo ya sé que han dejado pero no me han dado", "Vamos". Bi legionaixo horrekikuakin atzea. Haik eskopeta zeakin "Tau!" atia, ta "Aiba!", nere anaia sustauta. " A ver las ropas de este muchacho" y "No, es que las hermanas llevaron", "No, las hermanas no llevaron, están aquí. Dígame usted donde están y las cogeremos. Y si no nos enseña ya buscaremos". Ba bilddurtu, legionaixuakin, bilddurtu! Euretaikuak zian ta! Eta halaxe, emon otsain erropok eta Zaragozaa nere anaia.

6. Anaia Zaragozatik etxera bidali zuten

- **Erref:** ONA-085/007
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:14:37. **Bukatu:** 00:17:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Mekanikoa zelako salbatu zen anaia. Zaragozan ondo tratatu zutela zioen anaia horrek. Zaragozako gertakizun bat azaltzen du Maritxuk. Bi anaia kartzelatik pasatu gabe bidali zituzten etxera.

Transkripzioa

-Zaragoza eruaten ez badaue preso eongo zan.
-A, bestela preso bakarrik ez, herrikuak e... Herrikuakin juntau zianak hil in zittuen. Hil, e! Gizonak, mutillak majuak, e!
-Ofiziua eukitziarren suertia, ezta?
-E? Suertia! Legionaixuakin, legionaixuakin juntau ta suertia. Ta gero fan zian sei eruan zittuan mekanikuak Zaragozaa. Ta han esaten eben anaiak, han lanian ziharduela, "Fulano de tal, que se presente! Que aquí está su madre esperando", eta "Bai, ointxe hilko naixue [...], nere ama ezin dok baiña, ez xakok /etxakok/ eskolaik, leitten be ez xakik /etxakik/". Azkoittiarra, bai? "Ez xakik /etxakik/ ezetan ta, zela ba, nere ama ez dok /eztok/ honaiño aillau, ez dok /eztok/ aillau".
-Nor hori, zeuen ama?
-Ez, ez, lagunen, nere anaian lagunen ama. Azkoittikua ha.
-A, Azkoittikua.
-Eta, "Guazen bixok, neuk lagunduko dostat", "Bai, guazen", " Le voy a acompañar a mi amigo, ¿eh? Que ya le conozco a su madre y voy a saludar" y " Si, si, vete". Oso ondo tratau zittuen Zaragozan.
-Baiña zer, fan zan ama?
-Ta ama hantxe! Zortzi bat urteko neskatiillatuakin, hantxe. "Zela etorri zaie ba, ama?" ta "Paketiak be ez dittuk /eztxuk/ ba ailleaitten? Ba gu be aillau gaittuk paketiakin letxe", atzea. Ta "Honek baekixen gaiña estaziñuetan bai ta Zaragozaa aillau gaienian urten duu". Neskatiillatuak ekixen leitten. Amak ez ekixen. Ta haintxe, ama ikusi ta zertu ta ondo. Eta handik librau ta etxea bialdu euen. Ez zan /etzan/ eon nere anaia...
-Kartzelan e?
-Bapezta kartzelan. Ta beste anae bat Eibarren eon zan zeak, ba,

muniziñuak-eta eitteko lekuan eon zan ta ha be zeian. Ta eriuta hoixe bakarrik, gaztiena eon zan eriuta. Biaña ondo urten eben. Ondo jarri zan, eriuta eonda ondo jarri zan. Eta holaxe. Eta gerra denpora dana pasau geben danok “por ahi”.

-Biajian.

-Biajian.

7. Bordelen 7 hilabete errefuxiatuta

- **Erref:** ONA-085/008
- **Iraupena:** 0:03:16. **Hasi:** 00:17:02. **Bukatu:** 00:20:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » lhes egin beharra

Laburpena:

Avilesen itsasontzia hartu, eta ahizpa eta biak Bordelera joan ziren. Bertan Alacanteko familia batean egon ziren. Maritxu 7 hilabetez geratu zen, baina ahizpa lehenago itzuli zen etxera. Handik itzuli eta gero joan zen neskame Donostiara.

Transkripzioa

- Ni Avilesen sartu barkuan, ahizpia ta bixok, eta Burdeosea.

- Frantzian zenbat denbora in zebeñ?

- Zazpi bat hillebete, edo gutxiau.

- Ta frantsesez ikasi zebeñ edo?

- Bai zea, eurak ekixen erderaz ta! Alicantekuak zian ni euki nindduen familixia. Familixia oso majuak e! Bea zan Alicantekua, andria frantsesa, baiña erderaz ederki ekixen! Eta nik haikin erderaz itten neben eta... Berba batzuk bai ikasi nittuan baiña, saludaitten ta holakuak, baiña besteik ez. Eta ni hain etxea fan zianian, ointxe zuek etorri zaien letxe, fan nitzan, silla bat euan libre eta neuk okupau neben, ha sillia. Eta mina bateko zea zan, enkargaua zan.

- Gizonoi?

- Gizona. Eta etorten zan holakotxe billete morduakin, obreruai pagaitteko ekarten notsan. Eta ha holako bankotxo bat euen onduan ta hantxe jarritta egoten zan; ez, ez, ez molestaitteko, ta bankutxuan jarri ta hantxe egoten zan. Frantzian. Eta oso, familixa bat, ona! Neskatillatxo bat eukain, beatzi urtekua, ta "la hija pequeña y la hija mayor".

- Ta zu hara ez ziñan fan koñatiakin?

- E?

- Koñatiakin...

- Ahizpia segidan etorri zan etxera. Ha alabia hemen itxitta eukan alabia be, baserrixan, Goixenetxen, Baxilin etxian, e?

- Bai, bai, bai.

- Han bakarrik nenguan ni. Eta bestiak, gura ebenak, etorri zian honutz. Ta gu ez giñan etorri, pillia geatu giñan han. Hamen Aitzekuak eta —oinddio bizi dia— geatu in zan han eta holaxe. Baiña... Neu oso ondo tratauta euki nindduen eta oso pozik egon gintzezan. Eta geo ba hemendik be, ba, artian gaztiak giñan ta ama ta etxaitten noiz etorriko, etorteko ta etorteko, ta, ba, etorri nitzan. Eta Irunea. Ta Irunen lehenengo hartu nindduan... Ni neskatala ya, ba, hamazazpi-hemezortzi urte neukan, eta ederra nenguan, neskatala... Gosia pasautako moukua ez behintzat, eta “¿Cuántas ratas has comido en Bilbao?” esan nostain, ta “No, no he comido ratas”, y “No, esa

no ha comido ratas. ¿A que has estau bien en Bilbao?” y “Sí, estuve bien en Bilbao” ta gero [...] be istorixie kontau nostain [...] ta ondo ibili giñala ta oso ondo. Ta zeati, ta, ba, esan nosten zeati, ahizpiai lagunketiarren, gizona frentera fanda bakarrik geatu ez zein /etzein/ halaxe urten nebela ta , bueno, siñistu baeuen ez baeuen behintzat libre itxi nindduen ta etorri nitzan etxea ta kitto. Holaxe.

-Oseake gero handik etorri ta gero jua ziñan Donostiara?

-Bai, handi etorri ta gero fan nitzan Donostiara, kriada, zeakin, katalanakin.

8. Abade eta medikuei berorika berba egin beharra

- **Erref:** ONA-085/009
- **Iraupena:** 0:02:54. **Hasi:** 00:20:18. **Bukatu:** 00:23:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Euskara » Tratamenduak » Berorika

Laburpena:

<p>Eskolan Santa Lutzian ibili zen, fraide edo abade izandako bat maisu zutela. Maritxuren seme-alabak ere auzoan hasi ziren eskolan. Maritxuren maisua Murgiako Santa Kurtz errotako Migel izan zen. Eskola euskaraz eta gaztelaniaz jaso zuen. Maisuari zuka egiten zioten berba, baina abadeei berorika egin beharra zeukaten, medikuei bezala.</p>

Transkripzioa

-Orduan zu eskolan gerra aurretik ibili ziñan, ezta? Ibili baziñan.

-Bai, eskolan ni hementxe! Zeian, Santa Lutzian. Hementxe, e, ez dakit / eztakitt/ fraidia o abade eondakua o eztakit zer zan maisua. Ta haretzek erakutsi oskun eskolia, ta ondo! Ta nere umiak be, honek be mas bien hementxe eon zian, ta maistrak be onak eon zian hemen umiai eskolak erakusteko. Maistrak be onak euki gittuan ta hemengotxe eskolia daukuu guk.

-Zuk goguan dakotzu maisuen izena? Orduan euki zeбен maisuena.

-Migel zan, bai.

-Migel, frailia edo...?

-Ez. Ba, ez dakit /eztakitt/ fraille eondakua zan ala abare eondakua zan, ez dakit. Hementxe Santa Kruz baserrikua zan izatez.

-Errotakua?

-Hementxe Murgi auzokua. Santa Kruz, "caserío Santa Kruz".

-Baina errotia da, ezta?

-Errotia, bai. Horkotxia zan. Horrein, oin dauzenen tio izango zan.

-Eta eskolok euskeraz emoten otsuein edo erderaz?

-Bueno, bai, euskeraz be bai ta erderaz be bai. Orduan erderaz euen ordenia, itteko umieiri erderaz, ta erderaz be itten oskun ta...

-Baiña euskeraz be bai.

-Euskeraz be bai, bai. Bai, oso maisu ona izan zan, e? Oso seberua.

-Gerra ostekuak kastigo asko jasoten zittuain euskeraz itteaitik, ta berriz gerra aurrekuak ez.

-Kastigo... hola euskeraz ta erderaz ittearren kastigo asko ez eben emoten. Kastigu haundixena euki geben, abare bat eon zan hemen, Don Leonardo. Bai? Eta hari danak esaten otsain Zabaleta. Eta guk be, "Han! Zabaleta badator!". Ta berak entzun igual. Eta horren gaiñian zerik haundixena,

esaten oskun: "Ez deskuidau esaten Zabaleta, e! Esan Don Leonardo". Ta bueno!

-Baiña ez zan Zabaleta ala?

-Zabaleta zan! Baina "Don" ez zeukan! "Don" bihar.

-"Don Zabaleta" esan bihar.

-Ez, ez, "Don Zabaleta" ez gotsan esaten, Zabaleta!

-Zabaleta.

-Apaizari orduan errespeto haundixa jakon, ezta?

-Bai ta maixuak esaten [eben]: "Horri Don Leonardo esan, e! Ta, han, badator Don Leonardo esan. Zabaleta ez esan". Baiña, tartian...

-Eta zuek maisuari zuka edo berorika edo zela itten zotsain?

-"Zu" esaten gotsan guk, beti "zu".

-Eta abarieri?

-Abariai "berori".

-"Berori".

-Bai, hori bai, hori bai "berori".

-Ta medikuari ta?

-Medikuari be baitta. Medikuari be beti "beori". Gero be bai, e! Gero be guk ezautu dittuun medikuari beti "beori".

9. Ama botika ezagatik hil zen

- **Erref:** ONA-085/010
- **Iraupena:** 0:02:46. **Hasi:** 00:23:12. **Bukatu:** 00:25:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna

Laburpena:

Maritxuren ama oso gaixorik zegoen, eta botika gabeziagatik hil egin zen. Medikua, Joxe M. Galarza, eta bere familia porrot eginda geratu ziren gerra denboran nazionalisten aldekoak izateagatik. Ama hil zenean 7 seme-alaba bizi ziren oraindik etxean.

10. Medikua baserririk baserri

- **Erref:** ONA-085/011
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:25:58. **Bukatu:** 00:28:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak

Laburpena:

Don Jose Maria medikua baserririk baserri ibiltzen zen bere kotxe zaharrarekin. Kotxea matxuratzen zitzaionean Maritxuren anaia Juanek konpontzen zion. Maritxuren senarra izango zena jaio zenean, gau hartan bertan bera eta Urtiagaingo Maritxuren erditzeaz arduratu zen Joxe Mari medikua, oinez ibiltzen zen garaian. Erditzeetan etxeko amonak edota aldeko etxekoren batek laguntzen zion medikuari.

11. Anaia saiatuak Maritxurenak

- **Erref:** ONA-085/012
- **Iraupena:** 0:02:42. **Hasi:** 00:28:08. **Bukatu:** 00:30:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Baserrria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Gerra aurretik Goienetxan neska-mutil asko ziren. Mutilek tailerra jarri zuten kalean. Anaia gaztea oso alaia zen. Honen broma batzuk azaltzen ditu Maritxuk. Ama mila pezetako bat ikusi gabe hil zen. Maritxuren anaia Joxek sortu zuen "Tubos Chinchurreta" lantegia.

12. Hiru eskola ezberdinetan ikasi zuen

- **Erref:** ONA-085/014
- **Iraupena:** 0:02:54. **Hasi:** 00:31:50. **Bukatu:** 00:34:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Santa Lutziako eskolara etorri aurretik, herriko plazakoan ibili zen. "Señorita Pura y Señorita Lola" izan zituen maistra. "Señorita Purari Siete moñitos" esaten zioten. Eskola baino gehiago eskulanak irakasten zizkietela eta, amak Ospitaleko eskolara bidali zuen. Han mojak ziren maistrak, Sor Gracia eta Sor Paulina. Baina Berezaio auzora maisua etorri zenean, Berezaokora bidali zuen aitak. Hona kaletik eta beste auzo batzuetatik ere etortzen ziren ikasleak.

13. Eskolako jolasak

- **Erref:** ONA-085/016
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 00:37:32. **Bukatu:** 00:38:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Toka-torreka, gorde-gordeka (ikasle baten ukuiluan ganadu artean) eta horrelako jolasak egiten zituzten.

14. Behi jezten Mendikoan

- **Erref:** ONA-085/017
- **Iraupena:** 0:02:46. **Hasi:** 00:38:56. **Bukatu:** 00:41:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Goienetxan denetariko lanak egiten zituen. Mendikoara ezkondu zenean, bere amaginarrebak hatz bat hondatuta zuen eta behiak esku batez jezten zituen. Neskamea zuten Mendikoan. Etxeko amak bakarrik jezten zuen behi ostikolari bat jetzi zuen Maritxuk lehenengoan arazorik gabe.

15. Umetan itaurrean

- **Erref:** ONA-085/018
- **Iraupena:** 0:02:31. **Hasi:** 00:41:42. **Bukatu:** 00:44:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

Bera ezkondu eta amaginarreba lau urtera hil zen. Hiru behi eta idi pareak zituzten Mendikoan. Gogoan du Maritxuk bere aitak idiekin goldatzen zituela beste baserri batzuetako soroak. Bera ibili izan zen inoiz itaurrean aitaren idiekin. Berak pezeta bateko propina jasotzen zuen eta aitak 10 pezeta, egun osoan idiekin goldean egiteagatik.

16. Esnea diru-iturri

- **Erref:** ONA-085/019
- **Iraupena:** 0:02:33. **Hasi:** 00:44:13. **Bukatu:** 00:46:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Gozogintza

Laburpena:

Esne salmenta zen diru-iturriarik garrantzitsuenak kale inguruan zeuden baserrientzat. Kaletik urrun zeudenek, berriz, ezin zuten egunero kalera etorri esnearekin. Igandetan, hamabostean behin, kobratzen zuten esnea. Senarra basoan jardun zen lanean harik eta Julian Marques "Juliantxo"k, txokolategira lanera joateko eskatu zion arte.

Transkripzioa

- Eta esne asko erute zeuen kalera?
- Bai, ba esne... Haxe izan zan baserriko zeaik onena, "ayudaik" onena. Guretako ta hemen, hemen be bai, hemengo inguruetan be bai. Esnia. Ta esniakin ba domekan zeukan dirutxua. Eta hor Araoztik tta, Goimendittik tta, hurriñetik tta, ezin zian etorri...
- Urrintxo!
- Urrin! Ta haik inbidixia eukitten eben. Sarri esate nontan e: Zuek bai ondo. Zuek bai ondo. Hemen zapatuen eitten da zea...e...
- Kobratzia?
- Bai, e... Plazia, esate xakona merkaia.
- Bai, bai.
- Eta haik e etxian zeuen arrautzok, oilaskuok, eta ahal deuen dana ekarri, baina guk, esniakin...

-Egunero, egunero!

- Bai, egunero. Eta kintzenia, domekan, esniena, ha izaten zan onena. Defentsaik haundixena baserri, honeittako baserrixa? Haetxe, haik eta gizonak... Ba ne gizona ibili zan e... Lehenengo kuadrillatxua juntatte zian, Zabatzizabalgo, Duruerriko ta zeakin, eta basuan. Eta gero basotik gelditu zanian hemen sortu zan Juliantxo, hau palaziu hau, orduan harena zan. Julian Marques, zea zan. Eta harek hemen baebillen eta, zea, Karlos Moiuakin, primuakin han, Karlosenak, eta zeatzen zan harekin e baebillen, eta eun baten esan otzan e: "Migel? Zer? Ta... Oain ezin haut ba euki nik hi. Julian etorri xatak eta derrior bihar hau heu. Etzeixat ze, baina begi onetik hartu hau bai!Ta fan ai. Zeatik guk obra asko xabillau horrekin bai? Eta ezin geike kontraik in! Eta pena hartze xuat baina haretxena fan biok. Bueno ba fango naiz." Ta halaxe geo txokolateixa fan zan. Ba berrota sei urtekin eo fan zan!Txokolateixa ne gizona. Eta kitto.

17. "Juliantxo"ren lanak

- **Erref:** ONA-085/020
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 00:46:46. **Bukatu:** 00:49:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

"Juliantxo"-k elizondoko eskola berriaren obrak bukatu zituen eta eliza bera ere konpondu zuen. Santosen dendan hazi zen, eta LOYOLA txokolategiaren ugazaba izan zen. Eliza ondoan dagoen txaleta berak eraiki zuen. Bai Goienetxetik eta bai Mendikoatik eraman zuen urteetan esnea kalera Maritxuk. Hiru alaba izan ditu.

18. Auzoetako jaiak

- **Erref:** ONA-085/022
- **Iraupena:** 0:03:24. **Hasi:** 00:51:12. **Bukatu:** 00:54:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

<p>Lezesarriko jaiak lehen Gabonetan ospatzen ziren, San Estebanetan. Orain udaran ospatzen dituzte jaiok. Orain ez da egiten, baina Maritxu gaztea zenean auzoko jaietan auzo barrenean, Portalekuan, egiten zuten erromeria. Berezao azoan Santa Lutzia egunean ospatzen dira jaiak. Gaztea zenean Asentzio egunean Murgiako jaietara joaten ziren. San Prudentzioko jaietara ere joaten ziren, oinez.</p>

19. 'Hijas de María' kongregazioaren arauak

- **Erref:** ONA-085/023
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:54:36. **Bukatu:** 00:57:06

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:

<p>Soinujoleak alaitzen zituen jaiak. Dantza apur bat egin eta ilunabarrerako etxera itzultzen ziren. Hijas de María kongregazioak debekatu egin zuen arren, dantza lotuan egiten zuten. Hijas de María kongregazioko kideei zinta kendu edota taldetik botatzen zituzten dantza lotuan eginez gero. Zinta eta mantilarekin joan behar izaten zuten mezetara Hijas de María kongregaziokoek.</p>

20. 'Hijas de María' kongregazioaren inguruko kontuak

- **Erref:** ONA-085/024
- **Iraupena:** 0:02:31. **Hasi:** 00:57:06. **Bukatu:** 00:59:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:

<p>Hijas de María kongregaziokoak astelehenero elkartzen ziren, bakoitzak 60 puntuko bale bat jasotzeko. Señorita Maritxu eta Dama Maria ziren kongregazioko buruak. Mutilek ere bazuten kongregazioa, San Luisena, baina Maritxuren ustetan mutilek ez zieten jaramon handirik egiten araei.</p>

21. Elizako betebeharrak

- **Erref:** ONA-085/025
- **Iraupena:** 0:02:52. **Hasi:** 00:59:37. **Bukatu:** 01:02:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak

Laburpena:

Gizona fededuna zuen eta amaginarreba oso elizkoia. Urtean behin "Pazkoazkoa" egitera joaten ziren senar-emazteak Arantzazura, konfesatu eta jauna hartzera. Joan-etorria oinez egiten zuten. Mezara joaten ziren, baina bezperetara joateko ohiturarik ez zuten. Garizuman Goienetxetik goizeko seietan joaten ziren parrokiara kalbarioetara.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-11-22

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com